

# STEE-EILAS



Ohar honen bidez STEE-EILAS-ek salatu nahi du Hezkuntza Sailaren mesprezua Eskola Publikoa eta bere langileen lan baldintzekiko. Izan ere, atzo Sailburuordearekin izandako Mahai Sektorialeko bileran ez ziguten kezkatzen gaituzten gaien inguruan nahiko azalpenik eman.

Alde batetik, Sailburuak EPEa egiteko asmoa zuela prentsaren bidez jakin genuenetik hiru aste pasatu direnean, deiadiaren lehenengo berri ofizialak izan ditugu. **Dirudienez, 275 plaza aterako dituzte eta, gainera, bakarrik maisu-maistren kidegoan.** Kontuan hartuta urtero 500 irakasle inguru jubilatzen direla eta azken bi urteetan oposiziorik ez dela egon, argi daude sektorearen prekarizazioa (nahiz eta Sailburuak esan honela emplegua egonkortuko dela) eta deialdi honen lehen funtzioa: Hezkuntza Sailaren propaganda egitea.

Bestalde, Lan akordioa 2012tik agortuta dago eta 2 urte hauetan izandako sei bileretan saiatu gara langileontzako funtsezkoak diren bost puntuak negoziatzen eta administrazioak ez du nahi izan. Aldarrikapenak honako hauek dira: murrizketak kendu, plantillak handitu, ordezkapenak bete, erosahalmena berreskuratu eta erretiro duina izan. Kasu guztietan ezezko borobila jasotzeko eman duten arrazoia berbera da: krisi egoeran gaudela eta aurrekonturik ez dagoela.

Por medio de esta nota STEE-EILAS quiere denunciar el desprecio que manifiesta la Consejería de Educación hacia la Escuela Pública y las condiciones laborales de sus trabajadores y trabajadoras. Ayer, en la Mesa Sectorial con la Viceconsejera no se nos dieron las explicaciones necesarias sobre los temas que más nos preocupan.

Por una parte, tres semanas después de saber por medio de la prensa que la Consejería tenía intención de convocar una OPE, hemos recibido las primeras informaciones oficiales. La oferta que hace la Consejería es irrisoria: **275 plazas y solo en el Cuerpo de maestros y maestras**, aproximadamente la mitad de las jubilaciones anuales. Teniendo en cuenta que, además, no ha habido oposiciones los dos últimos años, es clara la precarización del sector (aunque la Consejera hable de de estabilización del empleo) y la función principal de la convocatoria: servir de propaganda al Departamento de Educación.

Por otra parte, desde el año 2012 el acuerdo regulador está en punto muerto. En las seis reuniones que hemos mantenido a lo largo de estos dos años hemos intentado negociar cinco puntos que consideramos imprescindibles para los trabajadores y las trabajadoras pero la administración da la callada por respuesta. Las reivindicaciones de STEE-EILAS son las siguientes: cese de los recortes, aumentar las plantillas, cubrir todas las sustituciones, recuperar el poder adquisitivo y tener derecho a una jubilación digna.

Euskal Herrian, 2014ko azaroaren 6an  
STEE-EILAS